

BASOAK, ZUHAITZAK ETA BERZIKLAKETA

Artikulu honen helburua, derrotxea ekiditeko, gizakien artean, heziketa bat ematearen beharra ikusea izango litzateke. Espero dugu paper berziklatuan kaleratzea, aurrepaso moduan. Gaur egungo zibilizazioak jasaten duen krisis ekonomikoa larria izan arren, ez da ezertxo ere egiten herria hezitzeko, berak dauzkan ondasunenberri eduki eta arduradun izan dadin. Adibide adierazgarri bezala, PAPERaren kasua aipa dezakegu. Irakurtzen ditugun egunkariak zaborretara botatzen baditugu, bere suntsiketarekin edo erreketarekin bat egiten dugu, kontutan hartu gabe, transformatuz, gizarteak behar duen ondasun bat dela.

Baina goazen piskanaka piskanaka.

ZEREZ EGINA DAGO PAPERARA?

Papera batezere egurraren pulpaz egiten da. Kilo bat paper egiteko bi kilo egur behar ditugu, zuhaitzk hain zuzen. Hauek egiten bait dute eguzkiaren indarra eta nahiko aberatsa den lurrari esker.



Sotxoko pinudia moztu ondoren

EGURRA

Egurraren kontsumoa mundu guztian goruntz doanean, eta ez papera egiteko bakarrik, baizik eta eraikuntzarako edo errekin modura, mundu guztian zehar gertatzen ari den baso suntsiketaren erritmoa unetik unera goruntz doa, segundu bakoitzean hiru hektarea txikitzen direlarik.

Bestalde, erritmo hau gehitzen duen bide biziotsuak oaindik gehiago gehitzen du suntsiketa erritmoa: lurraren goiko azalak babesik ez dutenez, euriteak egitean, urak lur aberatsa eramaten du, landareak elikatzen dituen lurra hain zuzen ere. Badira nazio «aurreratuak» deiturikoak, Espainiaren kasoa, ez dutela, kontsumitzen duten adina paper egiten eta ondorioz kanpotik ekarri beharrean aurkitzen direnak. Honela, erdi mailako nazioak bere basoen eremu zabalak moztu beharrean aurkitzen dira.

SUTEAK

Suteek azken 20 urteetan 2.000 hektareetako baso eta mendia erre dute. Ideia bat egiteko, Euskalerra oso baina lurralde haundiago bat oso osorik erreko balitz bezala.

Sute hauek, ICONAren jokabidearen ondorio lojikoak dira. Lurra babesteko aitzakipean, lur eremu izugarrietan pinua landatu dute, hau erregai arriskutsua delarik. Baso hauek erre zitezkeela eta ondorioz erosioa moztu beharrean aurkakoa probokatuko zuela ere aurretik bazekiten. Baina berpoblaketak batez ere egurra produzitzeko egiten dira. Pinua eta eukaliptoia landatzen badira, hauek azkar hazten diren zuhaitzak direlarik eta papergintza lantegiek erabiltzen duten makinentzat zelulosa egokiena egiten dutela da. Ekoloji taldeek askotan salatu duten gauza izan da hau. Bitartean milaka eta milaka zuhaitzi sua dela medio, kixkaliak geratu dira. Ondorioz, lurra larrugorritan geratzen da, udazkeneko euriek itsasorantz eraman ditzaten.

KUTSADURA: PAPERAK ZIKINTZEN DUENA

Papera egiteko erabiltzen den prozesuak, aldaketa gutxi eman ditu. Egurra, mekanikoki, kimikoki edo erdiki kimikoki txikitua eta desfibratua izaten da, prozesu honetan geratzen diren hondakinak botatzeko ura erabiliz. Paper lantegiek, metro kubikoka eta bukatutako produktoaren toneladarekin konparatuz, ur gehien beharduten lantegiak dira. Horrexegatik jartzen dira hibai ertzetan (Oiarzun, Oria, Urumea, etabarren ondoan). Bestalde, erabilitako ur kutsatu honek, alde batetik fibra eta zuhaitz azalez osatutako hondakin organikoak, eta betalde prozesuan erabilitako produktu kimikoak daramatza. Baita ere errautsa eta lohia.

Estatu mailan dauden 332 paperfabriketatik, 327 k. hondakin hauek zuzen zuzenean hibai batetara botatzen dituzte. Hauetatik, 37 k. bakarrik dute depurazio tratamendua eta gainontzerakoek, hau da 295 k., ez dute inongo depu-

raketarik, hondakinak dauden bezala eta lasai ederrean nahi duten lekuan boteaz.

BERZIKLATZEA

Papera, egurra eta basoaren menpe dago, hauek ondasun naturalak, gero eta mehatxatuagoak eta mundu guztian pikutara doazenak. Zuhaitz berpoblaketa asko eta asko paper fabrikakuntzaren interespean egiten dira, lurra aberats mantentzearen politika bat kontutan hartu beharrean.

Ikusi dugu baita ere, gaur egungo paper fabrikuntzarako erabiltzen den beste errekurtsu natural bat, ura alegia, gero eta urriago eta zikinago agertzen zaigula.

Eta azkenik, egin dezagun azterketa labur bat nola erabiltzen den eta erabili ondoren non bukatzen duen ikusteko.

Papera normalki lenguai idatziaren oinarri bezala erabilia izan da. Egunkari, aldizkari eta liburuak paperez egiten jarraitzen da; baina ezin dugu ahaztu papera, gero eta sofistikuagoak diren azal eta enbalapenetan erabiltzen denik eta baita ere, «erabili eta botatzeko» egiten diren hainbat eta hainbat gauzetan: zapiak, edalontziak, platerak, komuneko papera, etab.

Gainera, erabilitako paper hau, produzitzen ditugun beste zaborrekin batera, leku batean bota edo erretzeko, izugarriko diru kopuru eta ahaleginak inbertitzen ditugu.

Zorionez, exkakak, jendearen laguntza faltagatik edo eta jendea eta saltokian informazio falta dela eta.

Errekuperatzen dugun paper kamioikada bakoitzagatik zuhaitz batzuren bizitza salbatzen ari gara.

Gure udaletxeek lezioa ikasi behar lukete eta esku bat bota lana erreztuz, kontadore bereziak diseinatuz eta herritar guztiontzat heziketa kanpainak bultzatuz...

Astero papera eta kartoia jasoz, axolagabekeriz zaborretara bota beharrean, material hau berriro paper edo kartoia egiteko baliagarria izangolizateke. Errekuperaketa prozesuan lanpostuak ere sortuko liriateke.

Ikas dezagun baa, gauza txikienganako maitasuna baloratzen eta hortik naturaruntz hurbiltzen.

— LEZOKO EKOLOGI TALDEA —